

RENÉ CASSIN

LEHEN PEREDIKUA

1

Agur, agur, jente honak
algarrekila jarriak
Besta baten gozatzeko
esperantzak ekarriak.

2

René Cassin Baionar zen
amaz eta haurtzaroaz
Ber heinean Nizako zen
aitaz eta gaztaroaz.

3

Züzenbide legegintzan
ikasle zorrotz izan zen
Harentako lege oro
jenteen honetan behar zen.

4

Hamalauko güdükan
kolpatürük izigarri
Zaurtü, alargüntsa, haurren
zerbütxüko zeikün jarri.

5

Gero gerlari ohien
alkarte handi bat sortüz
Harez bakearen alde zen
alemanekin hitzartü.

6

"Société des Nations" deitüan
lan gaitza egin beitzüan
Hura Estatüen gainetik
epaile nahi zükean.

7

Hitler hein bat ahül zeno
tink etxeki behar zela
Cassin ez züen sinetsi
eta laster jin zen gerla.

8

Berrogeiko itxesian
de Gaullerengana joanik
Haren beso exkerra date
gerla güzian zügünik.

9

Gure dreten ageria
jente güzientzat eginik
Cassinek prestatü züan
haren gogotik da jinik.

LEHEN PEREDIKUA

1

Agur, agur, jende onak,
elkarrekin jarriak,
besta baten gozatzeko
esperantzak ekarriak.

2

Rene Cassin baionar zen
amaz eta haurtzaroaz.
Ber heinean, Nizako zen
aitaz eta gaztaroaz.

3

Zuzenbide-legegintzan
ikasle zorrotz izan zen.
Harendako, lege oro
jendeen onetan behar zen.

4

Hamalauko gudukan
kolpaturik izugarri,
zaurtu, alarguntsa, haurren
zerbitzuko zitzaigun jarri.

5

Gero, gerlari ohien
elkarte handi bat sortuz,
harez bakearen alde zen
alemanekin hitzartu.

6

"Société des Nations" deituan
lan gaitza egin baitzuen,
hura estatuen gainetik
epaile nahi zukeen.

7

Hitler hein bat ahul zeno
tink atxiki behar zela,
Cassin ez zuten sinetsi,
eta laster jin zen gerla.

8

Berrogeiko itxesean
de Gaullerengana joanik,
haren beso ezkerra dateke
gerla güzian zugunik.

9

Gure eskubideen agiria
jende guzientzat eginik,
Cassinek prestatu zuen;
haren gogotik da jinik.

guduka: borroka
kolpaturik: zauriturik
zaurtu: zauritu
zerbitzuko: zerbitzuan

harez: haren bitartez

zeno: zen artean
tink: tinko, irmoki

jin: etorri

itxes: ezbehar, hondamendi

dateke: izango da
zugunik: ausarki

jin: etorri

10

Gerla gizon famatürrik
sobera beita ezagün
Bakezale bat oraikoan
botzik ohora dezagün!

10

Gerla-gizon famaturik
sobera baita ezagun,
bakezale bat oraingoan
pozik ohora dezagun!

1. JELKALDIA

1914ko uztailaren 31a, Paris

Ramadier**11**

Aspaldiko lagün hona
bozten nüzü ikusteaz
Eta oritzapen zombaiten
zurekila egarteaz.

Cassin**12**

Lan txipi zombaiti esker
hein batetan bizi nüzü
Irakasle izateko
doktoregoari prestatuz.

13

Züzenbidea enetzat
errelijione bat düzü
Mündüko jente bakoitza
zerbütxatü behar beütü.

Ramadier**14**

Abokatügoala heltürük
sartü nintzan politikan
Eta izkiribaino nüzü
L'Humanité den kasetan.

15

Nazioarteko aferak
hor aipatü behar ditit
Berri gaiztoak dirade
nahi dügünaren despit.

Cassin**16**

Alemania sentorik da
Europako arranoa
Begietan dizü Frantzia
eta haintian errusoa.

Marguerite Ramadier**17**

Gure jaunkillotak ere
prestik dira gerlarako
Arrabantxaren hartzean
Alsaziaren biltzeko.

Ramadier**18**

Kasetalat üngürü bat
eginen dizügü bertan
Azken berrien jakiteko
arratseko mezüetan.

1. JELKALDIA**Ramadier****11**

Aspaldiko lagun ona,
pozten naiz ikusteaz,
eta oroitzapen zombaiten
zurekin egarteaz.

Cassin**12**

Lan txipi zombaiti esker
hein batean bizi naiz,
irakasle izateko
doktoregoari prestatuz.

13

Zuzenbidea, enetzat,
erlijio bat da,
munduko jente bakoitza
zerbitzatu behar baitu.

Ramadier**14**

Abokatugora heldurik
sartu nintzen politikan,
eta eskribau naiz
L'Humanité den kazetan.

15

Nazioarteko aferak
hor aipatu behar ditut.
Berri gaiztoak dira,
nahi dugunaren despit.

Cassin**16**

Alemania sendorik da;
Europako arranoa.
Begietan du Frantzia,
eta hara indian errusiarra.

Marguerite Ramadier**17**

Gure jaunkillotak ere
prestik dira gerlarako,
errabantxaren hartzean
Alsaziaren biltzeko.

Ramadier**18**

Kazetarat inguru bat
eginen dugu bertan,
azken berrien jakiteko
arratseko mezuetan.

egari: partekatu**txipi:** txiki**jende:** pertsona**abokatugo:** abokatutza**eskribau:** idazle**nahi dugunaren despit:**
nahi duguna gorabehera**jaunkillot:** jauntxo**inguru:** osteria, buelta
bertan: oraintxe bertan

Marguerite Ramadier

19

Ez dūgū presa gaiztorik
lehenik aihal gitean
Dena prestik ūtzi beitūt
zure bideala jitean.

Tiro elibat entzuten dira kanpotik

20

Emaztea

Zer debrū agitzen da?
Oihu elibat kanpotik
Jaurès eho dizüe!

Ramadier

Ez nizūn beste beldūrrik!

Marguerite Ramadier

Oraikoan gerla dizūgū!

Cassin

Bakoitxa bere kasernala!

Marguerite Ramadier

Gaixoak, agian laster arte!

Marguerite Ramadier

19

Ez dugu presa gaiztorik.
Lehenik afal gaitezen,
dena prestik utzi baitut
zure bidera jitean.

jin: etorri

elibat: batzuk

20

Emaztea

Zer deabru agitzen da?
Oihu elibat kanpotik.
Jaures ero dute!

Ramadier

Ez nuen beste beldurrik!

Marguerite Ramadier

Oraingoan gerla dugu!

Cassin

Bakoitza bere kasernara!

Marguerite Ramadier

Gaixoak, agian laster arte!

agitu: gertatu

elibat: batzuk

ero: hil, erail

kaserna: kuartel

1. SATANERIA**Ñapür****21**

Jakin dük azken berria
 Sarajevon agitua
 Ferdinand eho düela
 pusazalea Serbia.

Oker**22**

Hori, hori berri hona
 gerlaren pizle haütua
 Serbiak Autrixa-Hongria
 laster dikek oldartua.

Ñapür**23**

Errusiak Serbia
 lagüntüko dik prefosta
 Et(a) alemanak Autrixa
 süstengiko nonebeita.

Oker**24**

Frantzia ber saltsan dükek
 hor beita Moskuren üzkü
 Jaures bakezale hona
 epantxütik kentü diagü.

1. SATANERIA**Ñapur****21**

Jakin duk azken berria,
 Sarajevon agitua?
 Ferdinand ero dutela.
 Pusatzailea: Serbia.

Oker**22**

Hori, hori berri ona,
 gerlaren pizle hautua!
 Serbiak Austria-Hungaria
 laster dikek oldartua.

Ñapur**23**

Errusiak Serbia
 lagunduko dik prefosta.
 Eta alemanak Austria
 sustengatuko non ere baita.

Oker**24**

Frantzia ber saltsan dukek,
 hor baita Moskuren uzki.
 Jaures bakezale ona
 epantxutik kentü diagü.

agitu: gertatu
ero: hil, erail
pusatzaile: bultzatzaile

dikek: izango dik

prefosta: dudarik gabe

non ere baita: dudarik gabe

dukek: izango duk
uzki: atze

epantxu: oztopo, traba

2. JELKALDIA

1914ko urriaren 12a, Lorrenan. Aurrez
aurre, Alemaniako eta Frantziako armadak

Alemaniko armada
25

Heben dagozü aleman armada
Erroma zaharraren,
hau dügü segida
Honi bühür leiteanik
lür osoan ez da
Frantsesen lehertzeko
bertan gira fida.

Frantziako armada
26

Bil dezagün Alsazia-Lorraina
Prüsiarrek ebatsi zeiküena
Ber denboran, azken gerlari pentsa
Eta bertan, arranbantxa bortxa!

Guduka. Bi armadak badoaz

27

Apeza

Gure Aita zelüetan zirena,
gizon hau salba (e)zazü,
gazteegi beita hiltzeko, amen!

Cassin

Jauna, jüdio nüzü...

Apeza

Seme gaixoa, zaude bakean,
ber otoitza dit denentakoko,
kiristi, jüdio ala pagano,
ber Aita beitügü oroek!

Veisse

28

Jaun erretora badakit
azken hatsetan nizala
Xahüki joan nahi beinüz
uste düzü hala dela?

Apeza

29

Anaia, Jinko honak
grazia hori eman deizü,
zoaza bakean, amen!

Apeza

30

Eta zü, motiko gaztea,
fite sendotzen lagünt zitzala, amen!

2. JELKALDIA

Alemaniko armada
25

Hemen dago aleman armada.
Erroma zaharraren
hau dugu segida.
Honi bihur lekiokenik
lur osoan ez da.
Frantsesen lehertzeko,
bertan gara fida.

Frantziako armada
26

Bil dezagun Alsazia-Lorraina
prusiarrek ebatsi zigutena.
Ber denboran, azken gerlari pentsa,
eta bertan erranbantxa bortxa!

27

Apeza

Gure Aita, zeruetan zarena,
gizon hau salba ezazu,
gazteegi baita hiltzeko, amen!

Cassin

Jauna, judu naiz.

Apeza

Seme gaixoa, zaude bakean.
Ber otoitza dut denendako,
kiristi, judu ala pagano,
ber Aita baitugu orok!

Veisse

28

Jaun erretorea, badakit
azken hatsetan naizela.
Xahuki joan nahi bainaiz,
uste duzu hala dela?

Apeza

29

Anaia, Jainko onak
grazia hori eman dizu.
Zoaz bakean, amen!

Apeza

30

Eta zu, mutiko gaztea,
fite sendotzen lagun zaitzala, amen!

bihurtu: aurre egin

ebatsi: lapurtu, ostu
gerlari: gerlaz

kiristi: kristau

xahuki: garbiki

fite: arin

KANTA I Alarguntsen kantorea

a1

Alargüntsa niz eta
bihotza tristerik
Ene senarra beita
gerla hontan hilik.
Aski pena ez dūdan
hartaz gabetūrik
Seme bat Salonikan
badūt kolpatūrik
Bestetto bat Belgikan
presoner hartūrik.

a2

Ehūn milaka bada
emazte Frantzian
Gaixoak gū bezala
mindūn bihotzean
Hiler dolūz beigira
oro tristezia.
Ikara bizi gira,
nigarra begian
Zer sūerte tristeia
biziz desgrazian!

a3

Kreatūra flakia
beita emaztea
Emazte izatea,
izate tristeia!
Ardūra penatūa,
dolorez betea
Zer kalamitatea
hola bizitzea!
Ez ote lizatea
hobexe hiltzea?

a4

Hobe dela hiltzea,
oi ele torpea!
Ez da hori egia,
ez ene fedea!
Sakrifikatzen gira
nahiz bitoria :
Emazteek ez dūgūa
lagūntzen Herria?
Ohoratzen mūdūa
eta familia.

KANTA I Alarguntsen kantorea

a1

Alarguntsa naiz, eta
bihotza tristerik,
ene senarra baita
gerla honetan hilik.
Aski pena ez dudan
hartaz gabeturik,
seme bat Salonikan
badut kolpaturik.
Bestetto bat Begikan,
presoner harturik.

a2

Ehun milaka bada
emazte Frantzian
gaixoak, gu bezala,
mindun bihotzean,
hilei doluz baikara
oro tristezia.
Ikara bizi gara,
negarra begian.
Zer suerte tristeia
biziz desgrazian!

a3

Kreatura flakia
baita emaztea,
emazte izatea,
izate tristeia!
Ardura penatua,
dolorez betea,
zer kalamitatea
hola bizitzea!
Ez ote litzatekea
hobexe hiltzea?

a4

Hobe dela hiltzea?
Oi, ele dorpea!
Ez da hori egia,
ez, ene fedea!
Sakrifikatzen gara,
nahiz garaipena:
Emazteek ez dugua
laguntzen Herria?
Ohoratzen mundua
eta familia?

ez dudan: ez banu bezala

kolpatu: zauritu

flakia: ahul

ardura: sarritan, maiz

nahiz: nahian, nahi izanik
ez dugua: ez al dugu

3. JELKALDIA

1915, Antibes (Nizarik hullan)

Cassin**31**

Arraitaŋi Samuel Dreyfus
 Alsaziatik heltürük
 Baionan agitü züzün
 ingelesek kolpatürük.

32

Napoleonen armadan
 gerla eginik Espainian
 Hantik ütüzltzean
 arren erori Baionan.

33

Neskatila gazte batek
 artatü beitzüan ontsa
 Esposatü ziren eta
 nolaz ez naiteke lotsa?

Simone**34**

Gisa hortako beldürra
 senditzen beitüt nik ere
 Bakean ützi zütüt
 amarekin sarri arte.

Simone badoa

Ama**35**

Neskatila galant horri
 nola mintzatü zitzaio?
 Gaitzitürük joan zaizü
 sarri esküsa zakitzo!

René**36**

Zaude bakean amatto
 arrailerian ari ginen
 Zurekilan ützi nizü
 plazer zeizüla eginen.

37

Orai sei urte badizü
 algar ikusten dügüla
 Hastetik estimatü dit
 adiskide bat bezala.

Ama**38**

Emazte hona zünüke
 següretetik ari nüzü ...

3. JELKALDIA**Cassin****31**

Birraitona Samuel Dreyfus
 Alsaziatik heldurik,
 Baionan agitu zen
 ingelesek kolpaturik.

32

Napoleonen armadan
 gerla eginik Espainian,
 handik itzultzean,
 arren, erori Baionan.

33

Neskatila gazte batek
 artatu baitzuen ontsa,
 esposatu ziren, eta
 nolaz ez naiteke lotsa?

Simone**34**

Gisa horretako beldurra
 sentitzen baitut nik ere,
 bakean utziko zaitut
 amarekin. Sarri arte.

Ama**35**

Neskatila galant horri
 nola mintzatu zatzaizkio?
 Gaitziturik joan zaizu.
 Sarri eskusa zakizkio!

René**36**

Zaude bakean, amatto.
 Arrailerian ari ginen.
 Zurekin utzi nau,
 plazer zizula eginen.

37

Orain sei urte badu
 elkar ikusten dugula.
 Hastetik estimatu dut
 adiskide bat bezala.

Ama**38**

Emazte ona zenuke.
 Següretetik ari naiz.

hullan: hurbil**agitu:** gertatu
kolpatu: zauritu**arren:** beraz**ontsa:** ongi**lotsa:** beldur**sarri arte:** laster arte**sarri:** berehala**arrailerian:** txantxetan

René
39
Begi hona beitüt ama
ni ere hortan niagozû!

Ama
40
Zeren haidürü zirade
xahartzearen oitean?

René
41
Ahal bezain sarri date
agian daigün urtean.

René
39
Begi ona baitut, ama,
ni ere horretan nago!

Ama
40
Zeren aiduru zarete?
Zahartzearen, oitean?

René
41
Ahal bezain sarri dateke.
Agian, daugin urtean.

aiduru: zain
otean: ote

sarri: laster
daugin: datorren

4. JELKALDIA

1917ko martxoaren 29an, Parisen

Simone eta René

42

Jaun aüzapeza bai eta
lagün andana fidela
Jakinarazten deizüegü
heben ezkontzen girela.

Auzapeza

43

Errepublikarenganik
dütüdan potereen izenean,
züen baimenak
orai berean entzunik,
René Cassin eta Simone Yzombard,
ezkontzaz esposatürrik ziraiela diot.

Simone

44

Ene maitea entzüten dizüt
mendiz mendi horra dela
Harri batetik besteala jauziz,
orein gaztea bezala
Gure mürrüala hullantüren da,
gibelea baratüko
Horko leihotik so egin eta
hortik eni mintzatüko.

René

45

Bihotzekoa, jeiki ziteala,
eta tziauri berehala
Ikus kanpoan eijertü düala,
eta negüa badoala
Atertü dizü eta bellotü,
txoriñi bat hasi kantüz
Liliak erriz ürxapalari,
sasü berria mezütüz.

Simone

46

Ezar nezazü bihotz gainea,
erredola bat bezala
Eta besoan tzistakatürrik,
zigillü baten gisala
Herioa bezain indartsü düzü
amorosen maitarzüna
Sü eta gar da, sügar azkarra,
Jinkoak eman deigüna.

4. JELKALDIA

Simone eta René

42

Jaun auzapeza, bai eta
lagun-andana fidela,
jakinarazten dizuegu
hemen ezkontzen garela.

Auzapeza

43

Errepublikarengandik
ditudan botereen izenean,
zuen baimenak
orain berean entzunik,
René Cassin eta Simone Yzombard,
ezkontzaz esposaturik zaretela diot.

Simone

44

Ene maitea entzuten dut,
mendiz mendi horra dela,
harri batetik bestera jauziz,
orein gaztea bezala.
Gure murrura hullantuko da,
gibelea baratuko,
horko leihotik so egin, eta
hortik eni mintzatuko.

René

45

Bihotzekoa, jaiki zaitezela,
eta zauri berehala.
Ikus kanpoan eijertu duela,
eta negua badoala.
Atertu du, eta berotu;
txoriño bat hasi kantuz.
Liliak irriz usapalari,
sasoi berria mezutuz.

Simone

46

Ezar nazazu bihotz gainea,
erredola bat bezala,
eta besoan ziztakaturik,
zigilu baten gisara.
Herioa bezain indartsu da
amorosen maitasuna.
Su eta gar da, sugar azkarra,
Jainkoak eman diguna.

auzapez: alkate

horra izan: etorri

hullantu: hurbildu
gibelea: atzean
baratu: geratu

zauri: zatoz
eijertu: edertu

mezutu: iragarri

erredola: ezkutu

amoros: maitemindu

René**47**

Ühaitzak eta üharrak ere
 maitarzüna ezin ito
 lhork ezin dü sosez erosi,
 eta hor giaudetzü kito
 Güziz ederra, eman esküa
 biziko mendien goiti
 Ürrin honeko lilien gainti,
 elorrien artekati(k).

René**47**

Uhaitzak eta uharrak ere
 maitasuna ezin ito.
 Inork ezin du sosez erosi,
 eta hor gaude kito.
 Guziz ederra, eman eskua.
 Biziko mendien goiti,
 urrin oneko lilien gaindi,
 elorrien artekatik.

uhaitz: ibai
uhar: uholde
sos: diru
kito: zorrik gabe

urri: usain on
arteka: tarte, bitarte

5. JELKALDIA

Parisen, 1918ko azaroaren 11n

Cassin**48**

Gobernuak igorririk
Frantziaren defendatzera
Gutarik hanitx hor gaude
astoa bezain desferra.

Gerlari ohi bat**49**

Eginbidea beterik
ordaia merexi dugu
Haren zerbitxuko zauriak
betatxatu behar deizgu.

Beste bat**50**

Lehenik gure pentsioneak
hanitx ahulak dirade
Estropiatu bizi dena
miserian egon daite.

Clémenceau**51**

Zentzuzko galtoa zaigu
hortan dudarik ez dugu
Pentsioeen emendatzea
bihardanik segur düzü.

Cassin**52**

Eta zonbat alarguntsa
zonbat haur aitarik gabe
Amoinan ala ohointzan
nola bizi behar düe?

Clémenceau**53**

Gure gain dretak dütüe
lagüntü behar dütügu
Ordaisariko zuzena
Estatüan legeztatüz.

Cassin**54**

Lege berriaren alde
jo arren aitzina beti
Parlamentari bakoitza
hortara lehiaraz bedi.

55

Kaltetü güzien alde
junta gerlari ohiak
Politika bazter ütüz
bil ahal bezain guziak.

5. JELKALDIA**Cassin****48**

Gobernuak igorririk
Frantziaren defendatzera,
gutarik anitz hor gaude
astoa bezain desferra.

Gerlari ohi bat**49**

Eginbidea beterik,
ordaina merezi dugu.
Haren zerbitzuko zauriak
petatxatu behar dizkigu.

Beste bat**50**

Lehenik, gure pentsioak
anitz ahulak dira.
Hebaindu bizi dena
miserian egon daiteke.

Clémenceau**51**

Zentzuzko galtoa zaigu;
horretan dudarik ez dugu.
Pentsioen emendatzea
bihardanik segur da.

Cassin**52**

Eta zenbat alarguntsa!
Zenbat haur aitarik gabe!
Amoinan ala ohointzan,
nola bizi behar dute?

Clémenceau**53**

Gure gain eskubideak dituzte.
Lagundu behar ditugu,
ordainsariko zuzena
estatuan legeztatuz.

Cassin**54**

Lege berriaren alde
jo, arren, aitzina beti.
Parlamentari bakoitza
horretara lehiaraz bedi.

55

Kaltetu güzien alde
junta gerlari ohiak.
Politika bazter utziz,
bil ahal bezain guziak.

desferra: galdurik, noraezean**petatxatu:** konpondu**hebaindu:** elbarritu, ezindu**galto:** galde, eske**emendatu:** gehitu**amoina:** limosna
ohointza: lapurreta**arren:** bada

6. JELKALDIA

Jalgi turkandereak, Alemaniaren mezulari

56

Plegatü behar dügü
zepoan hartürük
Nahiz Aliatüek
ez güntüen goitürük.

57

Amerikar astoak
txapel handieki
Jin zaitze lagüntzera
eta guri jeiki.

58

Et(a) ingeles piratek
itsasoz tinkatü
Aleman popülüa
gosean zerratü.

59

Jüdü bizkar okerre
praubea haxitü
Herriari nabala
bizkarretik sartü.

60

Nahiz gibel hasirik
ez ginen galdürük
Azkar zagon armada
mügala bildürük.

61

Bake xüxenago bat
ardiets giniroan
Gorriak jüdüekin
ez baziren joan.

62

Gerlaren pakatzea
gure bizkar dago
Beste pizlerik bazen
oro dira kito.

63

Kaporal txipi batek
hori bera dio
Xede handirik badü
gaüzen xüxentzeko.

64

Herria piztuko dü
makila hartuko
Versaillesko tratüa
indarrez hautseko.

6. JELKALDIA**56**

Plegatu behar dugu,
zepoan harturik,
nahiz Aliatuek
ez gintuen goiturik.

57

Amerikar astoak,
txapel handiekin,
jin zaitezte laguntzera,
eta guri jaiki.

58

Eta ingeles piratek
itsasoz tinkatu;
aleman populua
gosean zerratu.

59

Judu bizkar-okerre
pobrea haizatu.
Herriari nabala
bizkarretik sartu.

60

Nahiz gibel hasirik,
ez ginen galdurik.
Azkar zegoen armada
mugara bildurik.

61

Bake zuzenago bat
erdiets geniroen,
gorriak juduekin
ez baziren joan.

62

Gerlaren pagatzea
gure bizkar dago.
Beste pizlerik bazen,
oro dira kito.

63

Kaporal txipi batek
hori bera dio.
Xede handirik badu
gauzen zuzentzeko.

64

Herria piztuko du,
makila hartuko,
Versaillesko tratua
indarrez hautsiko.

jalgi: irten**plegatu:** makurtu**goitu:** garaitu**jin:** etorri**tinkatu:** estutu**zerratu:** itxi**haizatu:** uxatu, izutu
nabala: labana**gibel:** atzerantz**geniroen:** genezakeen**kito:** zorrik gabe**txipi:** txiki

65

Ützül arren etxerat
gorrien heztera
Jüdüen erraustera
berriz armatzera.

65

Itzul, arren, etxerat
gorrien heztera,
juduen erraustera,
berriz armatzera.

arren: bada

7. JELKALDIA

1919an, Baionan

Cassin**66**

Nola zabiltza Battitta
gure zauriaz geroztik
Eta zer berri deigüzü
Xibero Herri goxotik?

Borthiry**67**

Bigerren kolpe tzar batek
ützi nizü gütitürük
Traholaz bizi behar dit
etxalteaz etsitürük.

68

Gaztetzünä emanik
Frantziako armadari
Estropiat ezarri nizü
pensione xühür batekin.

69

Handiek txipien aitzia
haxitü gütüe lazki
Daigün aldi batez berek
joan behar lükeie naski.

Cassin**70**

Jaunek algar ezagützen
haatik ez algar ehaiten
Haien honetan txipiek
ütsüki algar epaiten.

Borthiry**71**

Berrogei urtez petiko
gizon güzien lerroan
Hamarretarik hiruak
ments dütügü Xiberoan.

72

Orotara mila martir
gure lürralde txipian
Beste hanitx erdi hilik
familiak miserian.

Cassin**73**

Kaltetüen batartzünä
sortürük beität berriki
Hor sartü behar zünüke
dezagün algar etxeki.

Biak koblaka

7. JELKALDIA**Cassin****66**

Nola zabiltza, Battitta,
gure zauriaz geroztik?
Eta zer berri diguzu
Xibero herri goxotik?

Borthiry**67**

Bigarren kolpe txar batek
utzi nau gutiturik.
Traholaz bizi behar dut,
etxaldeaz etsiturik.

68

Gaztetasuna emanik
Frantziako armadari,
hebaindu ezarri nau
pentsio zuhur batekin.

69

Handiek txipien aitzia
haizatu gaituzte lazki.
Daugin aldi batez berek
joan behar lukete naski.

Cassin**70**

Jaunek elkar ezagutzen;
haatik, ez alkar eraiten.
Haien onetan, txipiek
itsuki elkar epaitzen.

Borthiry**71**

Berrogei urtez behetiko
gizon guzien lerroan,
hamarretarik hirurak
ments ditugu Xiberoan.

72

Orotara, mila martiri
gure lurralde txipian.
Beste anitz erdi hilik;
familiak miserian.

Cassin**73**

Kaltetuen batasuna
sorturik baitut berriki,
hor sartu behar zenuke.
Dezagun elkar atxiki.

diguzu: ematen diguzu**trahola:** lan eskerga**hebaindu:** elbarritu**aitzi:** aurka, kontra**haizatu:** kanporatu, bidali**daugin:** datorren, hurrengo**naski:** ziurrenik**ero:** hil, erail**txipi:** txiki**epaitu:** ebaki**ments:** falta

Borthiry**74**

Hamalauko gerla
zinez itsusia
Ezin errana düzü
gük han ikusia
Urd(e) ehaiten üdüri,
algar seinatzea
Lohian botitürük
hil(a) eta bizia.

Cassin**75**

Laborarien arteko
masakre larria
Kanu egilentako
mozkin ütürria
Eüskaldünen ehorzle
segür lazgarria
Bier elki diküzü
oi osagarria.

Borthiry**76**

Han kolpatü naiana
ez dit ezagützen
Bena ni bezalako
gizon gazte bat zen
Bizirik egoiteko
gure tirokatzen
Hebentik ari nüzü
hura non ote den.

Cassin**77**

Gerla goxorik ez da,
bena hau zen pisa
Ondokoa, sordeia,
dezagün epantxa
Eta gobernu oro
lagüntzera bortxa
Kaltetü den jentea
dezala peretxa.

Borthiry**74**

Hamalauko gerla,
zinez itsusia.
Ezin errana da
guk han ikusia.
Urde eraiten iduri;
elkar odolustea.
Lohian botiturik
hila eta bizia.

Cassin**75**

Laborarien arteko
masakre larria,
kanoi-egileendako
mozkin-iturria.
Euskaldunen ehorzle
segur lazgarria
biei ilki diguzu,
oi, osagarria.

Borthiry**76**

Han kolpatu nauena
ez dut ezagutzen,
baina ni bezalako
gizon gazte bat zen,
bizirik egoteko
gure tirokatzen.
Hemendik ari naiz
hura non ote den.

Cassin**77**

Gerla gozorik ez da,
baina hau zen pisua.
Ondokoa —sordeia—
dezagun epantxa.
Eta gobernu oro
laguntzera bortxa,
kaltetu den jentea
dezala peretxa.

ero: hil**botitu:** elkartu**ilki:** kendu**osagarri:** osasun**kolpatu:** zauritu**pisu:** larri, latz**sordei:** erabat txar**epantxatu:** eragotzi, ekidin**peretxatu:** estimatu

8. JELKALDIA**Frédéric****78**

Heben etxen zirade
 Nizako bortüan
 Bakea goza (e)zazü
 gure konpainian
 Gerla itsusi hura
 bego hürrünean
 Ahal güziez ahatz
 bere ifernüan.

Cassin**79**

Nizako herria dit
 segur aberria
 Eta eki sargian
 Baion(a) amerria
 Han kantatüren beitüt
 itsasoz joaitea
 Heben dügün ohora
 Mercantour bortüa.

Théodore**80**

Batzarri berezi bat
 zuri anderea
 Nahiz lürralde hau den
 halaber zurea
 Izan ziteala beti
 Renéren argia
 Eta biek etxeki
 Probentza herria.

Simone**81**

Mercantouren üdüri
 hantxe Pirenea
 Nahiz lehena düdan
 osoki enea
 Bien mintzajez kanta
 mendiko jentea
 Hanko poeta batek
 hontü kantorea.

8. JELKALDIA**Frédéric****78**

Hemen etxen zara,
 Nizako portuan.
 Bakea goza ezazu
 gure konpainian.
 Gerla itsusi hura
 bego urrunean,
 ahal guziez ahatz
 bere infernuan.

Cassin**79**

Nizako herria dut
 segur aberria.
 Eta, eki-sargian,
 Baiona ama-herria.
 Han kantatuko baitut
 itsasoz joatea,
 hemen dugun ohora
 Mercantour portua.

Théodore**80**

Batzarri berezi bat
 zuri, anderea,
 nahiz lurralde hau den
 halaber zurea.
 Izan zaitezela beti
 Renéren argia.
 Eta biek atxiki
 Proventza herria.

Simone**81**

Mercantourren iduri
 hantxe Pirinioa,
 nahiz lehena dudan
 osoki enea.
 Bien mintzairaz kanta,
 mendiko jendea,
 hango poeta batek
 ondu kantorea.

etxen: etxean**sargia:** sartalde**dugun:** dezagun**batzarri:** abegi, harrera**kantore:** abesti

KANTA II**La plenta deu pastou****b1**

Aulhers de totas las contradas
 Ca vietz audir nostes dolors
 Qu'ei fenit a jamei
 De veder tan d'aulhadas (bis)
 Sus los nostes camins
 Tot pingorlats de flors (bis).

b2

Au bèth miei deu primtemps
 Vriuleta berojina
 Que deishavas lo loc
 Tau banèth saboros
 Tu qu'ei seras tostem
 Ço qui'm va mancar hèra (bis)
 Qu'ei lo son tan plasent
 Deus charmants tringuerons (bis).

b3

Auprès de tu ma mie
 Que'n plori de tristessa
 Sovien'te d'aqueth temps
 Un cop secats l'arros
 Qu'enviavam lo Pigon
 Guardar las aulheretas (bis)
 E tos dus sus gason
 Cantavam ua cançon (bis).

b4

Adara tot solet
 Capsus de la montanha
 Co qui'm turmenta mes
 Que las nostes amors
 Qu'ei de saber que lèu
 Sus aquera pelosa (bis)
 Non cherirei pas mei
 Los petits anherons (bis).

KANTA II**La plenta deu pastou****b1**

Aulhers de totas las contradas
 Ca vietz audir nostes dolors
 Qu'ei fenit a jamei
 De veder tan d'aulhadas (bis)
 Sus los nostes camins
 Tot pingorlats de flors (bis).

b2

Au bèth miei deu primtemps
 Vriuleta berojina
 Que deishavas lo loc
 Tau banèth saboros
 Tu qu'ei seras tostem
 Ço qui'm va mancar hèra (bis)
 Qu'ei lo son tan plasent
 Deus charmants tringuerons (bis).

b3

Auprès de tu ma mie
 Que'n plori de tristessa
 Sovien'te d'aqueth temps
 Un cop secats l'arros
 Qu'enviavam lo Pigon
 Guardar las aulheretas (bis)
 E tos dus sus gason
 Cantavam ua cançon (bis).

b4

Adara tot solet
 Capsus de la montanha
 Co qui'm turmenta mes
 Que las nostes amors
 Qu'ei de saber que lèu
 Sus aquera pelosa (bis)
 Non cherirei pas mei
 Los petits anherons (bis).

9. JELKALDIA

1929ko irailaren 7an, Genevan

Briand**82**

Aleman eta frantsesak
lüzaz egonik bakean
Behar gabe sartu ginen
atzo gerla hilgarrian.

83

Zentzū honeala ützüüz
leize hori dügün zerra
Holako itsuskerier
betiko eman bizkarra.

Streseman**84**

Algarri esküa lüza
gure mügak orai beta
Eta gerlaz epaitea
gure artean debeta.

Cassin**85**

Jentea ezar dezagün
legegintzaren erditan
Estatüaren züzenak
hortan etxek izaritan.

Streseman**86**

Nazioneen alkartea
dügün algarreki berma
Bakearen zerbütxüko
denetan bego lehena.

Cassin**87**

Etzea da fundamena
jentearen hoinarria
Nazionearen gainetik
bakoitzaren aberria.

Streseman**88**

Aleman eta frantsesek
heben dügü denen giltza
Gure bi herrien artean
Europako bakegintza.

Briand**89**

Aitzinago joan gitean
Europaz dügün xedean
Europaren batarzüna
ezar dezagün bidean.

9. JELKALDIA**Briand****82**

Aleman eta frantsesak
luzaz egonik bakean,
behar gabe sartu ginen
atzo gerla hilgarrian.

83

Zentzu onera itzuliz,
leize hori dugun zerra.
Holako itsuskeriei
betiko eman bizkarra.

Streseman**84**

Elkarri eskua luza,
gure mugak orain bete,
eta gerlaz epaitzea
gure artean debeka.

Cassin**85**

Jendea ezar dezagun
legegintzaren erdian.
Estatuaren zuzenak
horretan atxiki izarian.

Streseman**86**

Nazioen elkartea
dugun elkarreki berma.
Bakearen zerbitzuko,
denetan bego lehena.

Cassin**87**

Etzea da fundamentua,
jendearen oinarria,
nazioaren gainetik
bakoitzaren aberria.

Streseman**88**

Aleman eta frantsesek
hemen dugu denen giltza.
Gure bi herrien artean,
Europako bakegintza.

Briand**89**

Aitzinago joan gaitezen
Europaz dugun xedean.
Europaren batasuna
ezar dezagun bidean.

dugun: dezagun**zerratu:** itxi**zuzen:** eskubide**izari:** neurri, tamaina**dugun:** dezagun

90

Hain hullan diren herriak
esküz eskü jar balite
Bakean eta denetan
indar handia lükeie!

91

Federazione batetan
güziak jün̄ta gitean
Europa dügün eraiki
bakearen egitean!

90

Hain hullan diren herriak
eskuz esku jar balitezke,
bakean eta denetan
indar handia lukete!

91

Federazio batean
guziak junta gaitezen.
Europa dugun eraiki
bakearen egitean!

hullan: hurbil

dugun: dezagun

2. SATANERIA**Oker****92**

Bozkak irabazirik
Hitler diagü nausi
Eta haren bertütez
Alemania nazi.

Ñapür**93**

Fuera demokrazia
sozialdemokrata
Bardin haren haurride
kristaudemokrata.

Gogobeltz**94**

Estatüa da Jinko
gure zerbütxüko
Harekin ifernüa
jüdü horientako.

Gogoñi**95**

Zer arraza hastiala
bere Bibliarekin
Abraham him-ham eta
hamar manüekin.

Oker**96**

Kiristiak ez dütük
hanitzez hobeak
Jüdütar Jesüs baten
adorazaleak

Ñapür**97**

Haatik aleman pürak
diren horiekila
Elizen koditzeko
denbora behar da.

Gogobeltz**98**

Arte hortan gerla dü
Hitlerrek piztuko
Eta gük arraheinki
süiala buhatuko.

Gogoñi**99**

Ifernürik ez bada
eternitatean
Guri esker badate
oraiko jentean.

2. SATANERIA**Oker****92**

Bozkak irabazirik,
Hitler diagu nausi.
Eta haren bertutez,
Alemania nazi.

Ñapur**93**

Fuera demokrazia
sozialdemokrata!
Berdin haren haurride
kristaudemokrata.

Gogobeltz**94**

Estatua da jainko
gure zerbitzuko.
Harekin infernua
judu horiendako.

Gogoñi**95**

Zer arraza hastiagarria
bere Bibliarekin,
Abraham, him-ham, eta
hamar manuekin.

Oker**96**

Kiristiak ez dituk
anitzez hobeak,
judu Jesus baten
adoratzaileak.

Ñapur**97**

Haatik, aleman puruak
diren horiekin
elizen koditzeko
denbora behar da.

Gogobeltz**98**

Arte horretan gerla du
Hitlerrek piztuko,
eta gük arraheinki
sua buhatuko.

Gogoñi**99**

Infernurik ez bada
eternitatean,
guri esker badateke
oraingo jentean.

haurride: senide**hastiagarri:** gorrotagarri**manu:** agindu**koditu:** zirikatu**arte:** tarte**arraheinki:** arretaz, arduraz
buhatu: putz egin**dateke:** izango da

10. JELKALDIA

1933ko iraila, Nazioen Kontseilua

**Kontseiluko presidentea
100**

Zure pleinta hartu dugu
nazi gobernuari buruz,
Bai eziz eta judüer
ari zaizuela mendeküz.

**Bernheim
101**

Silesiako judüer
lotzen zaigü gisa oroz
Neskak bortxatüz, haurrak joz
eta zonbait gizon ehöz.

102

Etzerik elkitzen eta
herritik ohiltzen gütü
Langitea debetetzen
hots ezin bizia dügü.

**Kontseiluko presidentea
103**

Orai ager dakigüla
Hitlerren mezülaría
Eia nola hartzen düan
holako pleinta lazgarria.

**Goebbels
104**

Gixot horren erranak
ez dira züen afera
Ez deizüegü kontürik zor
estatü libro bat gira.

105

Ikazkina etxeko jaun
errege bere funtsetan
Zer eginik ez düzüe
Alemaniako lürretan.

106

Nahi düana eginen dü
bere peko herritarrez
Komüniste, sozialiste
liberal eta judüez.

107

Arraza bat, Estatü bat
bürüan Führer azkar bat
Hori da gure legea
eta züena pubelalat!

10. JELKALDIA**Kontseiluko presidentea
100**

Zure pleinua hartu dugu
nazi gobernuari buruz,
bai ezi ez eta juduei
ari zaizuela mendeküz.

**Bernheim
101**

Silesiako juduei
lotzen zaigu gisa oroz,
neskak bortxatuz, haurrak joz,
eta zenbait gizon eroz.

102

Etzerik ilkitzen eta
herritik ohiltzen gaitu.
Lan egitea debekatzen.
Hots, ezin bizia dugu.

**Kontseiluko presidentea
103**

Orain, ager dakigula
Hitlerren mezularia.
Ea nola hartzen duen
holako pleinu lazgarria.

**Goebbels
104**

Gixot horren erranak
ez dira zuen afera.
Ez dizuegu konturik zor;
estatu libro bat gara.

105

Ikazkina, etxeko jaun;
errege bere funtsetan.
Zer eginik ez duzue
Alemaniako lurretan.

106

Nahi duena eginen du
bere peko herritarrez,
komunista, sozialista
liberal eta juduez.

107

Arraza bat, estatu bat;
buruan *Führer* azkar bat.
Hori da gure legea,
eta zuena, zakarrerat!

pleinu: kexu**bai ezi ez eta:** ezen**lotu:** atxilotu, atzeman**ero:** hil, erail**ilki:** atera**ohildu:** egotzi, bota**pleinu:** kexu**gixot:** 'gizon'-en gutxiesgarria**libro:** libre, aske

Herman**108**

"Eine Rasse, ein Staat,
und an seiner Spitze
einen starken,
charismatischen Führer
Das ist unser Gesetz,
das, wonach wir streben,
Während Ihre Rasse,
die schwach ist, zu den
Versenkungen und zum
Mißerfolg verdammt ist."

Herman**108**

Eine Rasse, ein Staat,
und an seiner Spitze
einen starken,
charismatischen Führer
Das ist unser Gesetz,
das, wonach wir streben,
Während Ihre Rasse,
die schwach ist, zu den
Versenkungen und zum
Mißerfolg verdammt ist.

KANTA III Nazien kantorea

c1

Alemania denen goitik
goitik erresuma hoberena
Arraza da herriaren
aragia eta fundamena
Odoletik horra zaigu
manatzeko dretik azkarrena.

c2

Odol garbi et(a) azkarra
behar dugu begiratu
Jüdüaren zikinetik
aberria gogorki xahatu
Et(a) Europa demokraten
minbizitik ber gisan pürgatu.

c3

Indarra da jüstizian
eskubiden ütürria
Versaillesko tratü hori
etsaiaren lege bühürria
Bil gitean eta jeiki,
arma dadin gure aberria.

c4

Arraza bat, populü bat,
aberri bat, gidari bat
Hitlerrekin bazter gabe
jo aitzina Europa güzialat
Gora Hitler, gure Führer,
gida gitzak orai nausigoalat!

KANTA III Nazien kantorea

c1

Alemania, denen goitik,
erresuma hoberena.
Arraza da herriaren
haragia eta fundamentua.
Odoletik horra zaigu
manatzeko eskubiderik azkarrena.

c2

Odol garbi eta azkarra
behar dugu begiratu.
Juduaren zikinetik
aberria gogorki xahutu.
Eta Europa demokraten
minbizitik ber gisan purgatu.

c3

Indarra da Justizian
eskubiden iturria.
Versaillesko tratatu hori,
etsaiaren lege bihurria.
Bil gaitezen eta jaiki,
arma dadin gure aberria.

c4

Arraza bat, populu bat,
aberri bat, gidari bat
Hitlerrekin, bazter gabe,
jo aitzina Europa guzirat.
Gora Hitler, gure *Fuhrer*!
Gida gaitzak orain nagusigorat!

horra izan: etorri
manatu: agindu

begiratu: zaindu

xahutu: garbitu

11. JELKALDIA**Cassin****109**

Gerla dikezügu laster
nazi basa horiekila
Barbaro hüksak dirade
moda berriko vandalak.

110

Ordü deno algarrekin
bürü eman behar zaie
Bestela bederazka
güziak janen gütüe.

111

Bortizkeria llabür eta
mügatü bati esker
Mündüko bigarren gerla
bertan dezakegü bazter.

Chamberlain**112**

Lo dagon arrano beltza
ützi behar da bakean
Pazientzia har dezagün
ikasiko dü artean.

Cassin**113**

Gü gira lo auherrean
eta hura lan tzarrean
Fite nausitüko zaigü
Txekoslovaken herrian.

114

Bonbak erorten beitira
Xangai eta Gernikan
Laster lehertüko dira
gure herriko karrikan.

Daladier**115**

Süiari parte bat ütüz
dügün eztiki mügatü
Ahalke zonbaiten saria
bakeak merexi beitü.

Cassin**116**

Ez bagira bertan igitzen
segür dizügü kobleta
Biak batetan jinen zaizkü
ahalkea (e)ta zifleta!

11. JELKALDIA**Cassin****109**

Gerla dukegu laster
nazi basa horiekin.
Barbaro hutsak dira;
moda berriko bandaloak.

110

Ordu deno elkarrekin
buru eman behar zaie,
bestela bederazka
guziak janen gaituzte.

111

Bortizkeria llabur eta
mugatu bati esker,
Munduko Bigarren Gerla
bertan dezakegu bazter.

Chamberlain**112**

Lo dagoen arrano beltza
utzi behar da bakean.
Pazientzia har dezagun;
ikasiko du artean.

Cassin**113**

Gu gara lo alferrean,
eta hura lan tzarrean.
Fite nagusituko zaigu
txekoslovakiarren herrian.

114

Bonbak erortzen baitira
Shanghain eta Gernikan,
laster lehertuko dira
gure herriko karrikan.

Daladier**115**

Suari parte bat utziz,
dugun eztiki mugatu,
ahalke zenbaiten saria
bakeak merezi baitu.

Cassin**116**

Ez bagara bertan higitzen,
segur dugu bikotea.
Biak batean jinen zaizkigu
ahalkea eta zaplada!

dukegu: izango dugu**ordu deno:** ordua den artean**bederazka:** banaka**tzar:** gaizto
fite:arin**dugun:** dezagun
ahalke: lotsa**bertan:** berehala
higitu: mugitu
jin: etorri
ahalke: lotsa

12. JELKALDIA

1940ko ekainaren 22an, Parisen. Jalgi turkak.

117

Oi garaipen ederra
uste gabekoa
Etsairik gogorrena
osoki pekoa.

118

Arroila zimentatzez
betuz aterpetüz
Lürpeko maratoia
nahi züan lüzatü.

119

Hamalauko güdüka
berritü bazüan
Irabaz zezakean
gure higatzean.

120

Oso burratü dügü
joküa kanbiatü
Txilimistak bezala
bürüan kolpatü.

121

Maginot bazter ütirik
Belgikala bildü
Bien artetik sartü
gibeletik hartü.

122

Hen jeneral zaharrak
hürrün ametsetan
Gureak aldiz gazte
lehen herroketan.

123

Frantzia zühür horrek
sosa beitü prunki
Ahal dügüna oro
dezaiogün elki.

124

Guri Parise lerdena
bai eta Champagna
Bordeleko gorria
kanpaña gizenä.

125

Guri langile gazte
Renault beribilak
Jüdüen hontarzünak
artiste abillak.

12. JELKALDIA**117**

Oi, garaipen ederra,
ustekabekoa!
Etsairik gogorrena,
osoki pekoa.

118

Arroila zimentatzez,
behetuz, aterpetuz,
lurpeko maratoia
nahi zuen luzatu.

119

Hamalauko guduka
berritu bazuen,
irabaz zezakeen
gure higatzean.

120

Oso atzeratu dugu,
jokoa kanbiatu.
Tximistak bezala,
buruan kolpatu.

121

Maginot bazter utzirik,
Belgikara bildu.
Bien artetik sartu,
gibeletik hartu.

122

Haien jeneral zaharrak,
urrun ametsetan.
Gureak, aldiz, gazte,
lehen herronketan.

123

Frantzia zuhur horrek
sosa baitu prontoki,
ahal dugun oro
diezaiogun ilki.

124

Guri Paris lerdena,
bai eta Xanpaina,
Bordeleko gorria,
kanpaña gizenä.

125

Guri langile gazte,
Renault beribilak,
juduen ondasunak,
artista abilak.

peko: mendeko

guduka: borroka

higatu: ahitu, hondatu

herronka: lerro, errenkada

prontoki: ugari

ilki: atera

kanpaña: baserrialde, landa

beribil: automobil

126

Fini libertatea
frantses ürgüllua
Eta goza (e)zazüe
gure akülüa!

126

Fini libertatea,
frantses urguilua
eta goza ezazue
gure akuilua!

finitu: amaitu
urguilu: harrotasun

KANTA IV Panzerlied

Ob's stürmt oder schneit,
Ob die Sonne uns lacht
Der Tag glühend heiß
Oder eiskalt die Nacht
Bestaubt sind die Gesichter
Doch froh ist unser Sinn
Ist unser Sinn
Es braust unser Panzer
Im Sturmwind dahin

Mit donnernden Motoren
Geschwind wie der Blitz
Dem Feinde entgegen
Im Panzer geschützt
Voraus den Kameraden
Im Kampf steh'n wir allein
Steh'n wir allein
So stoßen wir tief
In die feindlichen Reihn.

Wenn vor uns ein feindliches
Heer dann erscheint
Wird Vollgas gegeben
Und ran an den Feind!
Was gilt denn unser Leben
Für unsres Reiches Heer?
Ja Reiches Heer?
Für Deutschland zu sterben
Ist uns höchste Ehr.

Mit Sperren und Minen
Hält der Gegner uns auf
Wir lachen darüber
Und fahren nicht drauf
Und droh'n vor uns Geschütze
Versteckt im gelben Sand
Im gelben Sand
Wir suchen uns Wege
Die keiner sonst fand.

KANTA IV Panzerlied

Ob's sturmt oder schneit,
Ob die Sonne uns lacht
Der Tag gluhend heiß
Oder eiskalt die Nacht
Bestaubt sind die Gesichter
Doch froh ist unser Sinn
Ist unser Sinn
Es braust unser Panzer
Im Sturmwind dahin

Mit donnernden Motoren
Geschwind wie der Blitz
Dem Feinde entgegen
Im Panzer geschützt
Voraus den Kameraden
Im Kampf steh'n wir allein
Steh'n wir allein
So stoßen wir tief
In die feindlichen Reihn.

Wenn vor uns ein feindliches
Heer dann erscheint
Wird Vollgas gegeben
Und ran an den Feind!
Was gilt denn unser Leben
Für unsres Reiches Heer?
Ja Reiches Heer?
Für Deutschland zu sterben
Ist uns höchste Ehr.

Mit Sperren und Minen
Hält der Gegner uns auf
Wir lachen darüber
Und fahren nicht drauf
Und droh'n vor uns Geschütze
Versteckt im gelben Sand
Im gelben Sand
Wir suchen uns Wege
Die keiner sonst fand.

13. JELKALDIA

1940ko ekainaren 24an, Donibane Lohizunen.

Cassin**127**

Zer miseria bide hoitan
jente gaixoak milaka
Ahal oroz lagünturik
orai gitean ezkapa.

128

Aljeriat abioan nintzan
güdükaren lüzatzera
Bena Petainek ontzirik
üzten ez dü partitzera.

Aron**129**

Marexalak ez dü nahi
konkürrentik Aljerian
Poterez gose da eta
bürütus bere xaharrean.

Menant**130**

Gure jeneral berri bat
mintzatü da BBCtik
Bai eziz eta gerla hau
doi-doia dela hasirik.

131

De Gaulle jeneral horrek
bühürtzera deitzen gütü
Dela nor bere xokoan
dela haren ganat heltüz.

Simone**132**

Lehen alemanak motoz
Baionara heltzen dira
Arren Espainia hortara
bertan gitean erretira.

Cassin**133**

Francok batzarri honik
ez dikezü guretako
Ontzi bat xerka dezagün
Londreserat abiatzeko.

Komisarioa**134**

Ingeles ontzi bat jüstoki
partitzeko prestik dago
Azken xantza dükezüe
Ingalaterralat joateko.

13. JELKALDIA**Cassin****127**

Zer miseria bide horietan!
Jende gaixoak, milaka.
Ahal oroz lagundurik,
orain gaitezen eskapa.

128

Aljeriarat abioian nintzen,
gudukaren luzatzera,
baina Petainek ontzirik
uzten ez du partitzera.

Aron**129**

Marexalak ez du nahi
lehiakiderik Aljerian.
Boterez gose da, eta
burutos bere xaharrean.

Menant**130**

Gure jeneral berri bat
mintzatu da BBCtik,
bai ezi ez eta gerla hau
doi-doia dela hasirik.

131

De Gaulle jeneral horrek
bihurtzera deitzen gaitu,
dela nor bere zokoan,
dela harenganat helduz.

Simone**132**

Lehen alemanak motoz
Baionara heltzen dira.
Arren, Espainia horretara
bertan gaitezen erretira.

Cassin**133**

Francok batzarri onik
ez duke guretako.
Ontzi bat xerka dezagun
Londreserat abiatzeko.

Komisarioa**134**

Ingeles ontzi bat justuki
partitzeko prestik dago.
Azken xantza dukezue
Ingalaterrarat joateko.

guduka: borroka**partitu:** abiatu**marexal:** mariskal**burutos:** burugogor**bai ezi ez eta:** ezen
doi-doia: ozta-ozta**bihurtu:** aurre egin**arren:** bada
bertan: berehala**batzarri:** abegi
duke: izango du
xerkatu: bilatu**xantza:** aukera
dukezue: izango duzue

Cassin**135**

Goatzen arren istantean
azken leküen hartzera
Eta izarren argitan
boga boga mariñela, mariñela!

14. JELKALDIA

1940ko ekainaren 29an, Londresen

Cassin**136**

Zure deiari jarraikiz
hona gūdari bat haboro
Haatik exkerreko nüzü
eta lehenik jüdio.

de Gaulle**137**

Gisala xuria nüzü
eta zü arren gorria
Bien artean dizügü
llaburbiltzen aberria.

138

Frantzia larrü buxinkaz
eginik den arropa da
Haren orratza ni nüzü
eta zü hari azkarra.

139

Beso esküina zütuket
eta hobeki exkerra
Exkerret ützi beigütü
Frantziako esküin okerrak.

Cassin**140**

Errepublika ideia
balin badüzü legean
Zure gizona nükezü
nahi dükezün leküan.

de Gaulle**141**

Errepublika ez da hil
heben dizügü bizirik
Eta bitoriarri esker
etzi Parisen ederrik.

142

Lege gizona beitzira
xüxen zitzaigü erorten
Ene zerbütü güzien
gidari zütüt ezarten.

Cassin**135**

Goazen, arren, istantean
azken lekuen hartzera.
Eta izarren argitan,
boga, boga, marinela, marinela!

14. JELKALDIA**Cassin****136**

Zure deiari jarraikiz
hona gudari bat haboro.
Haatik, ezkerreko naiz,
eta lehenik judu.

de Gaulle**137**

Gisala, zuria naiz
eta zu, arren, gorria.
Bien artean dugu
laburbiltzen aberria.

138

Frantzia larru-buxinkaz
eginik den arropa da.
Haren orratza ni naiz,
eta zu hari azkarra.

139

Beso eskuina zaituzket,
eta hobeki ezkerra,
ezkertü ützi baikaitu
Frantziako eskuin okerrak.

Cassin**140**

Errepublika ideia
baldin baduzu legean,
zure gizona naizateke
nahi dukezun lekuan.

de Gaulle**141**

Errepublika ez da hil;
hemen dugu bizirik.
Eta garaipenari esker,
etzi Parisen ederrik.

142

Legegizona baitzara,
zuzen zatzaizkigu erortzen.
Ene zerbitzu guzien
gidari zaitut ezartzen.

arren: bada**haboro:** gehiago**gisala:** dirudienez**arren:** bada**buxinka:** zatitxo**zaituzket:** izango zaitut**naizateke:** izango naiz**dukezu:** izango duzu

143

Hona zure lehen lana
tratü baten prestatzea
Churchillekin aliantzaren
gisa horrez finkatzea.

143

Hona zure lehen lana:
tratu baten prestatzea,
Churchillekin aliantzaren
gisa horrez finkatzea.

KANTA IV Emazteen gerla

d1

Bizia sortzen, hazten, garbitzen,
eta berotzen etxean
lheslaria gorda sabaian,
opila pausa labeaz
Presonerari koli bat igor,
gizon lana har elgean
Xaharrak arta, haurrak eraiki,
makiak haz bordaltean.

d2

Emaztena da gerla xūme hau,
kasik armarik gabea
Ezpiritūaz, arimaz eta
sabelaren axolbeaz
Denborarekin goitūren dūgū
zezen beltzaren oldarra
Indar astoa higa dezagūn
gogo-bihotzen azkarraz.

d3

Nork erranen dū plaza betean
gure borroka torpea
Gure lan ūlūn eta barnoia,
bazter et(a) esker gabea
Populūaren erroa gira,
gizona da zūtabea
Bien artean ontsa parteka
lili, frūtak, poterea.

Errepika

d4

Gerla hau ere ūrrentūko da,
ekar dezala bakea
Zūzenarekin bardintarzūna,
botz emateko legea
Gerlan bezala, gerlatik landa,
hor dagoela emaztea
Mündū güzian būrūa libre,
gizona bezain jentea.

KANTA IV Emazteen gerla

d1

Bizia sortzen, hazten, garbitzen,
eta berotzen etxean.
lheslaria gorde sabaian,
opila pausa labeaz.
Presonerrari pakete bat igor,
gizon-lana har elgean.
Zaharrak arta, haurrak eraiki,
makiak haz bordaldean.

d2

Emazteena da gerla xume hau,
kasik armarik gabea,
espiritūaz, arimaz eta
sabelaren aizolbeaz.
Denborarekin goituko dugu
zezen beltzaren oldarra.
Indar-astoa higa dezagun
gogo-bihotzen azkarraz.

d3

Nork erranen du plaza betean
gure borroka dorpea?
Gure lan ilun eta barnekoia,
bazter eta esker gabea?
Populuaren erroa gara,
gizona da zutabea.
Bien artean ontsa parteka
lili, frutak, boterea.

Errepika

d4

Gerla hau ere urrenduko da;
ekar dezala bakea.
Zuzenarekin berdintasuna,
boz emateko legea.
Gerlan bezala gerlatik landa,
hor dagoela emaztea.
Mundu guzian burua libre,
gizona bezain jendea.

elge: larre
artatu: zaindu
eraiki: hazi
bordalde: etxalde

aizolbe: babes
goitu: garaitu

higatu: ahitu

dorpe: astun, zail

ontsa: ongi

urrendu: amaitu

jende: pertsona

15. JELKALDIA

1940ko abuztuaren 7an, Londresen

de Gaulle**144**

Esker mila Churchill jauna
zure batzarri erneaz
Eta gure borrokari
ekarten düzün bermeaz.

145

Egiazko Frantzia gira
bien etsaiari бүрүз
Petainek üko egin dü
eta Frantzia zatitü.

Churchill**146**

Frantzia txütik behar dit
eta züekin hala da
Hitler horri bühürtzeko
dügün beti algar süsta.

147

Hona tratü horren zola
alkarlaneko gogoa
Eta bide xüxen hortan
algarri berme osoa.

148

Bretainia Handiak arren
bardineko adiskide
Sosez, armaz, gisa oroz
lagüntü nahi zütüe.

de Gaulle**149**

Gure armada berria
züekilan esküz-eskü
Bien etsai güzien aitzi
güdükan sartüko dügü.

150

Frantziaren meneko dauden
lürak dütügü zaintüko
Eta züenak halaber
gogorki defendatüko

Cassin**151**

Oraidanik eskertzen dü
züen bankako lagüngo
Horri esker bizi beita
gurekila soldadoa.

15. JELKALDIA**de Gaulle****144**

Esker mila, Churchill jauna,
zure batzarri erneaz,
eta gure borrokari
ekartzen diozun bermeaz.

145

Egiazko Frantzia gara
bien etsaiari buruz.
Petainek uko egin du,
eta Frantzia zatitu.

Churchill**146**

Frantzia zutik behar dut,
eta zuekin hala da.
Hitler horri bihurtzeko,
dugun beti elkar susta.

147

Hona tratü horren zola,
elkarlaneko gogoa,
eta bide zuzen horretan
elkarri berme osoa.

148

Britainia Handiak, arren,
berdineko adiskide,
sosez, armaz, gisa oroz
lagundu nahi zaituzte.

de Gaulle**149**

Gure armada berria,
zuekin eskuz esku.
Bien etsai guzien aitzi,
gudukan sartuko dugu.

150

Frantziaren meneko dauden
lurrak ditugu zainduko.
Eta zuenak, halaber,
gogorki defendatuko.

Cassin**151**

Oraidanik eskertzen dut
zuen bankako lagungoa,
horri esker bizi baita
gurekin soldadua.

batzarri: abegi
eme: ezti

bihurtu: aurre egin
dugun: dezagun

zola: hondo, funts**arren:** bada

aitzi: aurka
guduka: borroka

meneko: meneko**lagungo:** laguntza

16. JELKALDIA

1941eko maiatzaren 17an, Londresen

Cassin**152**

Eskerrak adiskidea
Euskadiren lagüngoaz
Bai eta haste-hastetik
erakutsi süntenguaz.

Irujo**153**

Süstengü hori berritü
nahi deiot de Gaulleri
Et(a) ahalaz emendatü
zerbait haboro ekarri.

Cassin**154**

Popülü txipi batentzat
hanitx egiten düzüe
Eüskal güdari gazteak
gurekin haütü dirade.

155

Ordaiz hego eüskaldüna
frantses inperio güzian
Aterpetü nahi dügü
eta lagüntü nekezian.

Irujo**156**

Amerikar Estatüetan
hedatü den eüskaldünak
Azkartü nahi lütüke
züekiko harremanak.

157

Euskadikoek hitzarmen bat
behar günüke züekin
Eüskal armada txipi bat
Ingalaterran sor dadin.

158

Printzipiozko baimena
de Gaullek eman diküzü
Eta lehen ofizierak
laster honartü gei ditzü..

Cassin**159**

Eüskaldün armada baten
hedatzeko Ingalaterran
Churchillengana banoa
baimenaren eskatzera.

16. JELKALDIA**Cassin****152**

Eskerrak, adiskidea,
Euskadiren lagungoaz,
bai eta haste-hastetik
erakutsi sostenguaz.

Irujo**153**

Sostengu hori berritu
nahi diot de Gaulleri,
eta ahalaz emendatu;
zerbait haboro ekarri.

Cassin**154**

Populu txipi batentzat
anitz egiten duzue.
Euskal gudari gazteak
gurekin hautu dira.

155

Ordariz, hego euskalduna
frantses inperio guzian
aterpetu nahi dugu,
eta lagundu nekezian.

Irujo**156**

Amerikar estatuetan
hedatu den euskaldunak
azkartu nahi lituzke
zuekiko harremanak.

157

Euskadikoek hitzarmen bat
behar genuke zuekin,
euskal armada txipi bat
Ingalaterran sor dadin.

158

Printzipiozko baimena
de Gaullek eman digu,
eta lehen ofizierak
laster onartugai ditu.

Cassin**159**

Euskaldun armada baten
hedatzeko Ingalaterran,
Churchillengana banoa
baimenaren eskatzera.

ahalaz: ahal den neurrian
haboro: gehiago

txipi: txiki**ordari:** ordain**txipi:** txiki

ofizier: ofizial
onartugai ditu: onartzekoa da

KANTA V**Jaiki zaitez, herritarra!****e1**

Jeiki zite, herritarra,
lotsaren ülünpetik
Etsaien aztaparretik
argiaren hartzera
Libertatearen süiaz
egünaren piztera
Goiz berri bat sor dezagün
gaü horren sabeletik.

e2

Aski gezür, aski laido,
herri bat heben dago
Bere bihotzaren jabe,
bere hizkuntzan mintzo
Bere gisan bizi beita,
lür hau ez dü saltzeko
Altxa dezagün bürüa,
hobitik elkitzeko.

e3

Libra dezagün herria,
libra jente bakoitza
Oroz gaineretik jentea
dügün beti peretxa
Estatüak zain dezala
behar düan bezala
Artzain honaren bidetik
otsoa ken dezala.

e4

Beste herririk badago,
zapazaleen despit
Esküak eman algarri,
algar süstenga beti
Güziak libra gitean,
heben eta lurrean
Denek batean etsaia
sar dezagün sarean.

KANTA V**Jaiki zaitez, herritarra!****e1**

Jaiki zaitez, herritarra,
lotsaren ilunpetik,
etsaien aztaparretik,
argiaren hartzera,
libertatearen suaz
egunaren piztera.
Goiz berri bat sor dezagun
gau horren sabeletik.

e2

Aski gezur, aski laido,
herri bat hemen dago,
bere bihotzaren jabe,
bere hizkuntzan mintzo.
Bere gisan bizi baita,
lur hau ez du saltzeko.
Altxa dezagun burua
hobitik ilkitzeko.

e3

Libra dezagun herria,
libra jende bakoitza,
Oroz gaineretik, jendea
dugun beti peretxa.
Estatuak zain dezala
behar duen bezala.
Artzain onaren bidetik
otsoa ken dezala.

e4

Beste herririk badago,
zapaltzaileen despit.
Eskuak eman elkarri,
elkar sostenga beti.
Guziak libra gaitzen
hemen eta lurrean.
Denek batean etsaia
sar dezagun sarean.

lotsa: beldur
aztapar: atzapar

laido: irain

ilki: irten

jende: pertsona

dugun: dezagun
peretxatu: estimatu

zapaltzaileen despit:
zapaltzaileak gorabehera

17. JELKALDIA

1944eko ekainaren seia

Aingeruak**160**

Heben Londres.
 Gaüerdi ondoa da,
 arramaiatzaren seia.
 Lo ez ziraienek
 beharria zabal ezazüe.
 Hona mezü bat meteotik.

161

Aro gaitza dügü,
 denbora gaiztoa,
 Itsasotik irazarria,
 aize beltza, euri azkarra
 eta kazkaburra.
 Axolbean dena
 han egon dadila,
 Kanpoan dena
 bertan aterpealat hel bedi!
 Eta hona beste mezü bat.

162

Les sanglots longs
 des violons de l'automne
 Blessent mon cœur
 d'une longueur monotone.

163

Larrazkenez arrabitak
 heiagorra lüze hotza
 Kornamüsaren hasperenean
 ebaki dereit bihotza (berriz).

17. JELKALDIA**Aingeruak****160**

Hemen Londres.
 Gauerdi ondoa da,
 arramaiatzaren seia.
 Lo ez zaretenek
 beharria zabal ezazue.
 Hona mezu bat meteotik.

161

Aro gaitza dugu,
 denbora gaiztoa.
 Itsasotik, erazarria,
 haize beltza, euri azkarra
 eta kazkabarra.
 Aizolbean dena
 han egon dadila.
 Kanpoan dena
 bertan aterperat hel bedi!
 Eta hona beste mezu bat.

162

Les sanglots longs
 des violons de l'automne
 Blessent mon cœur
 d'une longueur monotone.

163

Larrazkenez, arrabitak
 heiagora luze hotza.
 Kornamusaren hasperenean,
 ebaki dit bihotza.

arramaiatz: ekain**beharri:** belarri**aro:** eguraldi**erazarri:** ekaitz**aizolbe:** toki babes**bertan:** berehala
larrazken: udazken
heiagora: garrasi

18. JELKALDIA

Utah Beach hondartza

Marks**164**

Horra da mementoa
Jeiki soldadoa
Etsaia ez duk hürün
Burrubaz duk ezagün
Pitz arren kanua.

165

Bonba bat horra bada
Ene ala hire
Bata badü ebaki
Bestea bedi jeiki
Irabazi arte.

Taylor, kantüz**166**

Güdüka handilako
hona tenorea
Lüzaz egü(rü)ki dügü
horren ohorea
Bakoitza prestik dago
zeren lüzatzea?
Ezin gira gibeltü
oraï da jauzte.

Marks**167**

Heben galtzen badügü
Fini da gurea
Denek altxa bürüa
Eta kalit etsaia
Plaja bazterrean.

Taylor**168**

Zainak hon dütügüno
goatzen arren haurrak
Züen haidü(rü) dirade
hantxek herritarrak
Oro libra ditzala
züzenen oldarrak
Eta betiko suntsi
nazien indarrak.

18. JELKALDIA**Marks****164**

Horra da mementoa.
Jaiki, soldadua.
Etsaia ez duk urrun;
burrubaz duk ezagun.
Pitz, arren, kanoia.

165

Bonba bat horra bada,
ene ala hire,
bata badu ebaki,
bestea bedi jaiki
irabazi arte.

Taylor, kantuz**166**

Guduka handirako
hona tenorea.
Luzaz iguriki dugu
horren ohorea.
Bakoitza prestik dago;
zeren luzatzea?
Ezin gara gibelatu;
orain da jauzte.

Marks**167**

Hemen galtzen badugu,
fini da gurea.
Denek altxa burua
eta kali etsaia
plaia bazterrean.

Taylor**168**

Zainak on dituguno,
goazen, arren, haurrak.
Zuen aiduru dira
hantxe herritarrak.
Oro libra ditzala
züzenen oldarrak,
eta betiko suntsi
nazien indarrak.

horra izan: etorri**arren:** bada**horra izan:** etorri**ene:** enetzat**hire:** hireztat**guduka:** bataila**iguruki:** itxaron**zeren:** zergatik**gibelatu:** atzera egin**fini izan:** amaitu**kalitu:** akabatu, hil**plaia:** hondartza**dituguno:** ditugun artean**arren:** bada**aiduru:** zain

KANTA VI Libertateari

f1

Askatarzün ederra
Azkorrian izarra
Kartsüki sartzen gira
Zure sentoralean
Maitarzünez düzü josten
Ezpatak moztü düana
Jenteak haurridetzen
Zure hegalean pean.

f2

Gain zohardian ekia
Alagera dabila
Zü bardin haurridea
Libertatearen bila.

f3

Tiranoenganik libra
Beharrünanta lagünt
Esperantxa denentzat
Herio gaztigürik ez
Galdü dena bizi bedi
Denek dügün arrapika :
Ogendantari parka,
Presontegia zerra!

f4

Algar besarkatüz denek
Münduari potak eman
Algar etxek gainetan
Izar argia dügünek.

KANTA VI Libertateari

f1

Askatasun ederra
azkorrian izarra.
Kartsuki sartzen gara
zure sentoralean.
Maitasunez duzu josten
ezpatak moztu duena;
jendeak haurridetzen
zure hegalean pean.

f2

Gain zohardian ekia
alagera dabila?
Zu berdin, haurridea,
libertatearen bila.

f3

Tiranoenganik libra;
behartsua lagun.
Esperantza denentzat.
Herio-gaztigurik ez.
Galdu dena bizi bedi.
Denek dugun errepika:
ogendantari barka;
presondegia zerra!

f4

Elkar besarkatuz denek
munduari potak eman.
Elkar atxiki gainetan
izar-argia dugunek.

azkorri: egunsenti

sentorale: santutegi

haurridetu: senidetu

gain: zeru

zohardi: garbi

dabila: al dabil

gaztigu: zigor

dugun: dezagun

ogendant: errudun

pot: musu

atxiki: gorde

gain: zeru

19. JELKALDIA

1948ko irailaren 2an, Parisen

Eleanor Roosevelt**169**

Giza eskubideen alde
ageri horren hontzale
Batzordeko aitzindari
kargüa dit orai bete.

170

Haatik horren idazlea
zirriborroan zü zirade
Eta parka izan baniz
ausartziaren mügazale.

Cassin**171**

Ageri hau ene ustez
dekalogo berritüa
Prefosta laikoa da
bena bardin sakratüa.

172

Jente oro ikus bedi
mündüko herritar trebe
Erresumaren gainetik
eskübide hoién jabe.

173

Estatüa ez da Jinko
jente bakoitxa da haütü
Zaintü behar dügü eta
oroz gainetik lagüntü

Eleanor Roosevelt**174**

Estatüaren heztea
ezin da klarki aipatü
Bena sinatü tratüa
bakoitzak bete behar dü.

Cassin**175**

Estatüa behar dügü
arbitre-jüje bezala
Bena bazter batekila
jentea peretxa dezala.

176

Lür osoko jüstizia
sor dadila horren berme
Errespetazen ez düen
governüen beharzale.

19. JELKALDIA**Eleanor Roosevelt****169**

Giza eskubideen alde
ageri horren ontzaile
batzordeko aitzindari
kargua dut orain bete.

170

Haatik, horren idazlea
zirriborroan zu zara,
eta barka izan banaiz
ausartziaren mugatzaile.

Cassin**171**

Agiri hau, ene ustez,
dekalogo berritua,
prefosta, laikoa da,
baina berdin sakratua.

172

Jende oro ikus bedi
munduko herritar trebe,
erresumaren gainetik
eskubide horien jabe.

173

Estatua ez da jainko.
Jende bakoitza da hautu.
Zaindu behar dugu, eta,
oroz gainetik, laguntu.

Eleanor Roosevelt**174**

Estatuaren heztea
ezin da klarki aipatu,
baina sinatu tratua
bakoitzak bete behar du.

Cassin**175**

Estatua behar dugu
arbitro-juje bezala,
baina bazter batekin
jendea peretxa dezala.

176

Lur osoko justizia
sor dadila horren berme,
errespetatzen ez duten
governuen behartzaile.

ontzaile: prestatzaile**prefosta:** noski, jakina**jende:** pertsona**hezi:** otzandu, bezatu**juje:** epaile**peretxatu:** estimatu

Eleanor Roosevelt

177

Egün batez jinen düzü
agian lan honi esker
Haatik orai tratügei hau
saldü behar dügü dener.

Cassin

178

Eskerrak adiskidea
kontseilüen zühürtziaz
Eta izen handi batez
lan honen aterpetzeaz.

Eleanor Roosevelt

177

Egun batez jinen da,
agian, lan honi esker.
Haatik, orain tratugai hau
saldu behar diegu denei.

Cassin

178

Eskerrak, adiskidea,
kontseiluen zuhurtziaz,
eta izen handi batez
lan honen aterpetzeaz.

jin: etorri

20. JELKALDIA

Parisen, 1966aren amaieran

Cassin

179

Boga, boga, mariñela, mariñela

...

Azkenean euskaldün bat heben!

Zoinen botzik nizan...

Zer berri da Baionan?

Charritton

180

Herritik horra nitzaizü

lagüngo baten eske

Hegoaldetik jiniko

iheslari hoién alde.

181

Franko lüzaz governüak

hartü dütü arraheinki

Bena berriki hasi da

horien hürrüntzen bortizki.

182

Eskübideen idazlea

beitzirade mündüan

Iheslarién aterpea

berma dirozü Frantzian.

Cassin

183

Estatüak sinatzen dü

eta bertan hitza jaten

Epantxü zaion legea

behar ordüan (ordin) bazter üzten.

184

Arrano horren hegala

hein bat ahültü behar da

Lüma zombait Europari

beste zombait eskualdeka.

185

Euskaldünen borroka hoi

Europaren alde doa

Europaren etsai beita

Estatüen nausigoa.

186

Euskaldünetik ere badit,

baiones hanitxek bezala.

Neskatoak euskaldün ginitizün,

eta euskara txipitik

entzün dit etxen.

Euskal kantore andana badakit,

bereziki "Boga, boga, mariñela."

Nahi düzüa biek eman dezagün?

20. JELKALDIA

Cassin

179

Boga, boga, marinela, marinela.

...

Azkenean euskaldun bat hemen!

Zeinen pozik naizen!

Zer berri da Baionan?

Charritton

180

Herritik horra naiz

lagungo baten eske,

hegoaldetik jiniko

iheslari horien alde.

181

Franko luzaz gobernuak

hartu ditu arraheinki,

baina berriki hasi da

horien urruntzen bortizki.

182

Eskubideen idazlea

baitzara munduan,

iheslarién aterpea

berma dirozu Frantzian.

Cassin

183

Estatuak sinatzen du,

eta bertan hitza jaten.

Epantxu zaion legea

behar-orduan bazter uzten.

184

Arrano horren hegala

hein bat ahuldu behar da.

Luma zenbait, Europari;

beste zenbait, eskualdeka.

185

Euskaldunen borroka hori

Europaren alde doa,

Europaren etsai baita

estatuen nagusigoa.

186

Euskaldunetik ere badut,

baiones anitzek bezala.

Neskatoak euskaldun genituen,

eta euskara txipitik

entzun dut etxen.

Euskal kantore andana badakit,

bereziki "Boga, boga, marinela",

Nahi duzua biek eman dezagun?

horra izan: etorri
lagungo: laguntza
jin: etorri

franko: oso
arraheinki: arretaz, arduraz

dirozu: dezakezu

bertan: berehala
epantxu: oztupo

txipitik: txikitatik
etxen: etxean
kantore: abesti

duzua: al duzu

Charritton
187
Bai gogo honez!

Charritton
187
Bai, gogo onez!

KANTA VII**g1**

Boga, boga, mariñela, mariñela!
Joan behar dugu urrutira, urrutira
Bai Indietara, bai Indietara.
Ez dut, ez dut, ez dut nik ikusiko
Zure plai ederra, plai ederra
Agur, agur, agur,
Donibaneko itsaso bazterra.
Mariñela, boga! mariñela ...
La, la, la... Mariñela!

KANTA VII**g1**

Boga, boga, marinela, marinela!
Joan behar dugu urrutira, urrutira.
Bai, Indietara. Bai, Indietara.
Ez dut, ez dut, ez dut nik ikusiko
zure plaia ederra, plaia ederra.
Agur, agur, agur,
Donibaneko itsaso bazterra.
Marinela, boga! Marinela!
La, la, la... Marinela!

21. JELKALDIA

1968ko abenduaren 9an, Oslon

Aase**188**

Bakearen Nobel saria
gogotik emaiten deizüt
Jente güzien honetan
lan hanitx egin beitzü.

Cassin**189**

Eginbidea bete dit
oparirik ez dit hartze
Züzenbidezaleen alde
honartüren dit halere.

190

Züzenen berme handiena
abürü publikoa da
Bakoitzak zaintü behar dü
mündüko herritar bezala.

191

Bakea hortik horra da
demokraziari esker
Arren opari eder hau
hel dakizüela güzier.

Aase**192**

Egün zü zirade jauna
mündüko herritar lehena
Eta zure aholküa
nazioneentzat hoberena.

Cassin**193**

Prometeo bezala,
jentea tai gabe
Goiti ari nahi da,
tiniala hel arte
Han haurridekila
bat egin dezake
Bizia eman liro
xede horren alt(h)e.

194

Azaroak ez daki
norentzat den ari
Ez eta ereileak
üztailaren berri
Gük ere zor deiogü
bihia lürrari
Ondokoen honetan
sor dezan hazkürrü.

21. JELKALDIA**Aase****188**

Bakearen Nobel saria
gogotik ematen dizut
jende guzien onetan
lan anitz egin baituzu.

Cassin**189**

Eginbidea bete dut;
oparirik ez dut hartze.
Zuzenbidezaleen alde
onartuko dut, halere.

190

Zuzenen berme handiena
aburu publikoa da.
Bakoitzak zaindu behar du
munduko herritar bezala.

191

Bakea hortik horra da
demokraziari esker.
Arren, opari eder hau
hel dakizuela guziei.

Aase**192**

Egun zu zara, jauna,
munduko herritar lehena,
eta zure aholkua
nazioentzat hoberena.

Cassin**193**

Prometeo bezala,
jendea tai gabe
goiti ari nahi da,
tinira hel arte.
Han haurrideekin
bat egin dezake.
Bizia eman liro
xede horren alde.

194

Azaroak ez daki
norentzat den ari,
ez eta ereileak
uztailaren berri.
Guk ere zor diogu
bihia lurrari,
ondokoen onetan
sor dezan hazkürrü.

zuzen: eskubide
aburu: iritzi

horra izan: etorri**arren:** bada, beraz

tai gabe: gelditu gabe
goiti: gorantz
tini: tontor
haurride: senide, anai-arreba

liro: lezake**bihi:** ale, garau**hazkürrü:** elikagai, jateko

22. JELKALDIA

1976ko otsailaren 20an, Parisen

Cassin**195**

Erizain eta barberak
bihotzez esker deizüet
Kontratüa fini beität
laster ützi zütüet.

196

Zelüko bedeziari
ez düt auzi egiterik
Bizi lüzea ützi deit
lan ederrenez beterik.

Aingeruak**197**

Abrahamen seme hona
sar bedi bere pausüan
Sinain agertü legea
zügünki bete beitzüan,

198

Bai eta laikotürrik
mündü osoan hedatü
Eskübideak argitüz
jente güzia lagüntü.

199

Jente bakoitxa eraikiz
legediaren tinian
Sakratü erakutsi dü
jinko honaren heinean.

200

Cassinen irakaspena
zabal dadila mündüan
Horrez boztario günüke
lurrean eta zelüan.

22. JELKALDIA**Cassin****195**

Erizain eta barberrak,
bihotzez esker dizuet.
Kontratua fini baitut,
laster utziko zaituztet.

196

Zeruko bedeziari
ez dut auzi egiterik.
Bizi luzea utzi dit,
lan ederrenez beterik.

Aingeruak**197**

Abrahamen seme ona
sar bedi bere pausuan,
Sinain agertu legea
zugunki bete baitzuen.

198

Bai eta, laikoturik,
mundu osoan hedatu.
Eskubideak argituz,
jende guzia lagundu.

199

Jende bakoitza eraikiz
legediaren tinian,
sakratu erakutsi du
jainko onaren heinean.

200

Cassinen irakaspena
zabal dadila munduan.
Horrez boztario gunuke
lurrean eta zeruan.

barber: barberu, mediku
dizuet: ematen dizuet
fini izan: amaitu

bedezi: sendagile

pausu: atsedan

zugunki: ausarki, beldur gabe

eraiki: hazi
tini: tontor

boztario: pozkario, poz

KANTA VIII

Azken otoitzea

h1

Ene Jauna, Jinko Jauna
Zeren arren ützi naizü?
Ni otoizka zuregana
Bena zü gor eta mütü.

h2

Saintüa zütügü alta
Israelen Jaun gorena
Haren deia entzün eta
Hura libratü züana.

h3

Ni aldiz harra bezala
Jenteak nai mespretxatzen
Jaunaz ere da trufatzen
Erranez : "eraik dezala!"

h4

Azkenean entzün naizü
Eta galtzetik altxatü
Lehoaren züntzurretik
Zezenaren adarretik.

h5

Kantatüko zütüt beti
Haurrideen aitzinean.
Jüstizia bizi bedi
Ondokoen bihotzean.

KANTA VIII

Azken otoitza

h1

Ene Jauna, Jainko Jauna,
zeren, arren, utzi nauzu?
Ni, otoizka zuregana,
baina zu, gor eta mutu.

h2

Saindua zaitugu, alta,
Israelen jaun gorena,
haren deia entzun eta
hura libratu zuena.

h3

Ni, aldiz, harra bezala,
jendeak nau mespretxatzen.
Jaunaz ere da trufatzen,
erranez «eraiki dezala».

h4

Azkenean entzun nauzu,
eta galtzetik altxatu
lehoiaren zintzurretik,
zezenaren adarretik.

h5

Kantatuko zaitut beti
haurrideen aitzinean.
Justizia bizi bedi
ondokoen bihotzean.

zerren: zergatik

arren: bada

alta: bada

haurride: senide, anai-arreba

AZKEN PEREDIKUA**201**

Frantziak ohoratzen dü
Panteonean etzanez
Et(a) Euskaldünek Sohütan
trageria bat emanez.

202

Hainbeste hon egin züan
dener mündü zabalean
Jenten züzenak ereinez
lege ünibertsalean.

203

Erresuma hanitxetan
ez beitira honartürük
Borroka franko badago
popülüetan piztürük.

204

Elkibide hoberena
demokrazian da hazi
Horrekin bake züzena
tirano güzien aitzi.

205

Kültüren hanixtarzüna
zer estakürü okerra
Diferentzien gainetik
jentea beti jente da.

206

Herri aberatsetan ere
zer egina bada beti
Orano tortüratzen da
mündü zabalean gainti.

207

Genozidak ari dira
franko lekütan isilka
Et(a) emazte hanitxentzat
bardintarzüna hürrün da.

208

Mündüa bat egiten da
salerospen eta sosez
Halaber egin dadila
jüstiziaz eta dretez.

209

Hori da René Cassinek
eman deigün helbürüa
Bide hortarik agian
horra da mündü berria.

AZKEN PEREDIKUA**201**

Frantziak ohoratzen du
Panteoian etzanez,
eta euskaldunek Sohütan
trageria bat emanez.

202

Hainbeste on egin zien
denei mundu zabalean,
jendeen zuzenak ereinez
lege unibertsalean.

203

Erresuma anitzetan
ez baitira onarturik,
borroka franko badago
populuetan pizturik.

204

Ilkibide hoberena
demokrazian da hazi.
Horrekin bake zuzena,
tirano guzien aitzi.

205

Kulturen aniztasuna
zer estakuru okerra.
Diferentzien gainetik
jendea beti jende da.

206

Herri aberatsetan ere,
zer egina bada beti.
Oraino torturatzen da
mundu zabalean gaindi.

207

Genozidak ari dira
franko lekutan isilka,
eta emazte anitzentzat
berdintasuna urrun da.

208

Mundua bat egiten da
salerospen eta sosez.
Halaber egin dadila
justiziaz eta eskubidez.

209

Hori da René Cassinek
eman digun helburua.
Bide horretarik, agian,
horra da mundu berria.

trageria: pastoral

zuzen: eskubide

ilkibide: irtenbide

aitzi: aurka

estakuru: aitzakia

oraino: oraindino
gaindi: zehar

emazte: emakume

horra izan: etorri

210

Esperantxa handi hortan
laster ützi zütüegü
Et(a) eskerrik hoberenak
bihotzetik dereitzüegü.

210

Esperantza handi horretan
laster utziko zaituztegu,
eta eskerrik hoberenak
bihotzetik dizkizuegu.

dizkizuegu: ematen dizkizuegu

KANTA IX Bakearen bidea

i1

Aingürü, satan, kiristi, türkeria
Aspaldian bizi dramatürjia,
Ütz Pastoralari urdin (e)ta gorria.
Bikuntarzünak eman trajería,
Idazten gizonen historia.

i2

Filosofo argitü, bakezale
Fededün edo korpitz geinazale
Eretzean aldiz genozida pizle
Kirstien edo gorrien alde
Gizona da usteberezi hüme.

i3

Egünko haurra biharko gizona,
Zonbaitek ez üken jakitatea
Ütsütarzün honek gaizten zaurria,
Berpizten gerla, bere deiadarra,
Auzirik gabe ürratzen arima.

Errepika

Giza eskübidek ez düe sekülan
Lekü handirik gure historian
Bakezaleak ere izan badira
Gerlakoak dütügü ohorean
Jeiki Cassin, Lüther King, Gandhi
Türmentean dügü berriz gizaldi
Agian gure jeiak zabaltüko mezüa
Bakoitzak orit etxek bakearen bidea!

i4

Hamalauko gerla zen isiltü
Odol mainüz gizonak ziren greütü
Miliuka haur behar üken lürpetü
Bi Hamarkada, ondokoa piztü
Ahatzerik ehoka, günüala goitü.

i5

Igaran mentea, hilgarriena
Nolakoa dükegü oraikoa?
Amerika, Afrika, Asia, Europa,
Ote, Testamentüko lau zaldünak?
Ote, gizadiaren argizainak?

KANTA IX Bakearen bidea

i1

Aingeru, satan, kiristi, turkeria;
aspaldian bizi dramaturgia.
Utz pastoralari urdin eta gorria.
Bikuntasunak eman tragedia,
idazten gizonen historia.

i2

Filosofo argitu, bakezale
fededun edo gorputz-geinatzaille.
Eretzean, aldiz, genozida pizle;
kirstien edo gorrien alde.
Gizona da uste-bereizi ume.

i3

Egungo haurra, biharko gizona.
Zenbaitek ez ukan jakitatea.
Itsutasun honek gaizten zauria,
berpizten gerla, bere deiadarra;
auzirik gabe urratzen arima.

Errepika

Giza eskubideek ez dute sekulan
leku handirik gure historian.
Bakezaleak ere, izan badira.
Gerlakoak ditugu ohorean.
Jaiki Cassin, Luther King, Gandhi,
tormentuan dugu berriz gizaldi.
Agian, gure jaiak zabalduko mezua;
bakoitzak oroit atxiki bakearen bidea.

i4

Hamalauko gerla zen isildu.
Odol bainuz gizonak ziren nazkatu.
Milioika haur behar ukan lurpetu.
Bi hamarkada, ondokoa piztu,
ahatzirik eroka genuela goitu.

i5

Igaran mendea hilgarriena.
Nolakoa dukegu oraingoa?
Amerika, Afrika, Asia, Europa
ote Testamentuko lau zaldunak?
Ote gizadiaren argizainak?

kiristi: kristau

geinatzaille: zaintzaile
eret: alde

uste-bereizi: paradoxa

gaiztu: gaiztotu

ahatzi: ahaztu
ero: hil
goitu: garaitu

igaran: iragan
dukegu: izango dugu